

5. AKTA

2001eko apirilaren 5ean ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta bateko apirilaren bostean, lehenengo deialdian eta Joan Karlos Alduntzin Juanena jaun Alkatearen presidentzian eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin Behineko Idazkari jauna bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira
Obdu Lorenzo de Dios andrea
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz

arauz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu batzordea ospatzeko. Ezin etorria adierazi du Joseba Xabier Portugal Arteaga jaunak. Ez du adierazi ezin etorria Angel Ouviaña Vidal jaunak.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea ontzat emateko Gobernu Batzordea osatzeko behar hainbat partaide etorri direla, Lehendakaritzak irekitzat eman du batzarraldia 9:00etan, ondoren Gaizerrendako gaiak aztertzeari ekinez.

1.- Aurreko batzarraldiko akta 4a. 01-3-26koa irakurri eta onartzea.

Atalburuan aipatzen den akta bertakoen kontsiderazioan jarririk, Gobernu Batzordeak erabaki du bere osoan ontzat eman eta dagokion Aktaliburuan transkribatzea.

2.- 3/01 zka. duen kontu-fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 3/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, SEI MILIOI LAUREHUN ETA HOGEITA BOST MILA HIRUREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI (6.425.359,-) PEZETAKOA.

3.- Udal enpleguak egindako kilometro-kopurua.

Gobernu Batzordeak erabaki du ONTZAT EMATEA JOAN MARKOS ONEKA LABIANO udal-enpleguaren 2001eko martxoko desplazamendu-gastuak, 37.332,- pezetako kantitatez, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/93 Dekretuko 14. artikularen arabera, indarreango E.F.A.P.E.B.A.E.-ko IV-6 Ebazpen iragankorrari buruzkoarenara, 1037 km x 36 pta./km-ko egitearen emaitza.

4.- Dirulaguntza Gaztekutxari gazteentzako Auzolandegi Arrokaundieta eta Lord John gotorlekuan aurrera eramateko.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez eta Gazteria eta Kirolen Batzorde Informatiboak 2001eko martxoaren 29an emandako diktameneko proposamenez,

E R A B A K I D U

GAZTEKUTXari 300.000,- pezeta abonatzea Arrokaundietan Lan Alorreko proiektua finantziatzeko eta Lord John gotorlekuan Aranzadi Elkartearekin kolaborazioan egingo duen lanagatik.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-325/01 Baimenduaren kargura.

5.- "Trintxer-Azkuene 2.06, 2.08 eta 2.09 Hiri Eremua hiri berritzeko dokumentua erredaktatzeko" kontratazio espedientea onartzea.

Ikusirik "Trintxer-Azkuene 2.06, 2.08 eta 2.09 Hiri Eremua hiri berritzeko dokumentua erredaktatzeko" kontrataziorako ekindako espedientea eta baita ere kontratua arautzeko Baldintza Ekonomiko Administrazioen Plegua.

Ikusirik aurrekontuko kontsignazioari buruz Udal Idazkariak eta Kontuartzaitzak emandako txostenak.

Kontuan izanik espediente honen izapidetza urgentea dela zeren eta Eusko Jaurlaritzako Lurraldeko Etxebizitza, Ingurumen eta Antolaketa Sailari eskatu baitaio kontratu hau esleitzeko epearen luzapen bat aipatu Sailaren subentzioa lortu ahal izateko, epea datorren apirilaren 30ean amaitzen delarik.

Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Kontratazio-espedientearen izapidetza urgente deklaratzeko ohiko epeak murriztuz eta zehazki proposamenak aurkezteko epea 10 egunera.

BIGARREN.- Kontratua prozedura irekiz eta lehiaketaz esleitzea.

HIRUGARREN.- Kontratua arautuko duten Klausula Administrazio Berezien Plegua onartzea.

LAUGARREN.- 10.500.000,- pezetako gastua onartzea.

BOSGARREN.- Gainerako arauzko izapideak betetzea dagokion kontratuaren formalizazioa arte.

- Gaizerrendak kanpo eta aurrez bertako zinegotzien aho batez gaizerrendan sartzea berronetsirik hurrengo gaiak sartu dira.

6.- Pasai Donibanen ur-depositora bidean Villa Mercedesen obra txikiak egiteko lizentzia eskatzea.

Ikusirik 2001eko otsailaren 20ko 596 erreferentziaren instantzia, non Felix Lopetegi Agirre jaunak eskatzen duen obra txikiak egiteko lizentzia Villa Mercedesen ondoko bordaren teilatua eraikitzeke gaur daukan fibrozementuzkoa kendu eta hormigoizko beste bat egiteko.

Ikusirik Udal Teknikariaren txostena aldekoa dela.

Kontuan izanik Korporazio Lokalen Zerbitzuen Arautegiko 9. artikulua eta Hirigintz Diziplinaren Arautegiko 4.a.

Administrazio Orokorreko Teknikariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- FELIX LOPETEGI AGIRRE jaunari Villa Mercedesi erantsirik estalgune bat eraikitzeke obra txikiak egiteko lizentzia ez ematea, zeren eta:

1.- Udal Korporazioak 72-6-15eko bere Batzorde Iraunkorren ez baitzitzaion eman lizentzia garajea egiteko obrentzat.

2.- Akordio horretatik segitzen da lehendik dagoen eraikina (teilapea) gaurko itxiturekin udal-baimenik gabe dagoela eginda.

3.- 96-6-11n behin betirako onartu eta 96-8-13an 155. zenbakiarekin Gipuzkoako Buletin Ofizialean publikatuak izan ziren Pasaiako Planeamenduko Arau Subsidiarioetan, 070. artikuluan “Eraikigarria ez den zoru pribatuak erabiltzeko baldintzak” direla eta zera dio akordioak: *“Erabilpen erresidentziala duten espazio hauek, partzeleiei erantsirik, lorategia, baratzeak, solas eta oinezkoen eremuak izateko erabiliko dira. Sarbide errodatu zuzena badute eta beti ere horrela baimendu badu espreski arauak, erabili ahalko dira kanpo librean aparkatzeko. Zoru hau ezingo da sestrako probetxamendu bolumetrikoko sekundariorako erabili (txabolak, teilapeak eta beste eraikuntza eta instalazio lagungarriak).*

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

7.- Pasai Donibaneko Kabite baserrian obra txikiak egiteko lizentzia eskaera.

Ikusirik 01-3-12ko 821 erreferentzia duen eskaera, MANUEL IARTZABAL ETXEBESTE jaunak agertzen duen udal-zerbitzu teknikoek eskatutako dokumentazio osagarria.

Ikusirik udal-teknikariaren txostena ez dela aldekoa.

Kontuan izanik Korporazio Lokalen Zerbitzuen Arautegiko 9. artikulua eta Hirigintz Diziplinaren Arautegiko 4.a.

Administrazio Orokorreko Teknikariaren proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- MANUEL IARTZABAL ETXEBESTE jaunari Kabite baserriko estalpearen moduluaren teilaberritzea egiteko obra txikiak burutzeko lizentzia ez ematea, zeren eta Baserria eraikitzeke lizentzia emateko baldintzen artean 4.c) puntuan esaten baitzen “*gaurko edifizioa desitxuratzen duten eraikin eta eranskai degradanteak eraistea*”, hilabeteko epea emanaz aipatu puntua betetzeko eta, beraz, jadanik eraitsia egon behar zuelarik.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

Eta aztertzeke beste gairik ezean, 9:30etan batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.